



GOBERNU BATZARRA
2023.07.18

Alkateordea:
Ander Figuerido Zubiria

Bertaratutako zinegotziak:
Kristina Pelaez Errazkin

Aitor Agirresarobe Murgi

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren hemezortzian, 9:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:

Ez dira bertaratu:
Angel Martinez de Rituerto Arregi
Goiuri Ezeiza Arandia

Estitxu Kortejarena Ugarte

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

1. Akta hau onartzea: 2023ko uztailaren 11koa.

2. M.J.A.R.-ek 2022ko abenduaren 1eko Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako akordioaren aurka aurkeztu duen helegitea ebaztea.

3. Tolosako Udaleko Kontratazioko Mahai Iraunkorraren kideak izendatzea.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2023KO UZTAILAREN 11KOA.

Alkateordeak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. M.J.A.R.-EK 2022KO ABENDUAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK HARTUTAKO AKORDIOAREN AURKA AURKEZTU DUEN HELEGITEA EBAZTEA.

AURREKARIAK

Miguel Jose Alonso Rodriguezek Donostiako administrazioarekiko Auzien 2 zenbakidun epaitegian, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu du honako bi egintza administratiboen aurka:



- Bata, Tokiko Gobernu Batzarrak abenduaren 1ean hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaile orokorrak onartu ziren.

- Bestea, Tokiko Gobernu Batzarrak abenduaren 1ean hartutako erabakiaren aurka. Erabaki horren bidez, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaile espezifikoaren aurka, zehazki Administrazio Bereziko Eskalako A2 azpitaldeko azpieskala teknikoaren aurka.

Errekurtso honen jakinarazpena epaitegiak bidalitako ebazpenean du oinarria, hau da, Donostiako administrazioarekiko auzien 2 zenbakidun epaitegiak Tolosako udalari erreklamatu dio espedientearen kopia eta udalaren abokatuaren izendapena.

Proposamen hau egiterako garaian, kontuan hartu behar da 2022ko azaroaren 29an udaleko zerbitzu juridikoei egindako txostena, oinarrien egokitasunari buruzkoa.

GAIAREN AZTERKETA ETA PROPOSAMENA

Nahiz eta epaitegian jarritako errekurtsoan ez den adierazten aurkaratzeko arrazoiak zeintzu diren, interesatuaren ordezkariarekin hitzegin ondoren, bere arrazoa "Tronpeta irakaslearen" hizkuntz eskakizunean eta honen derrigortasun datan (gainditua dagoena) legoke. "Tronpeta irakasle" lanpostuak hirugarren hizkuntz eskakizuna eta 31.01.1994 derrigortasun data du ezarria.

Errekurtsoak aurrera jarraituko balu, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen oinarri arautzaile espezifikoan isladatutako Administrazio Bereziko Eskalako A2 azpitaldeko azpieskala teknikoan dauden lanpostu guztiak eragin ahal izango lituzke (guztira 24 lanpostu), honek izango lituzkeen ondorioekin.

Oinarri bloke honetan, honako plaza edota lanpostuak atxikituak daude: hiru gizarte langile plaza, obretako ingeneri teknikoa, Ingurumena, jasangarritasuna eta landa-eremuko teknikaria, Txistulari bandaren zuzendaria-irakaslea, Klarinete irakaslea, Biolontxelo irakaslea, Perkusio irakaslea, Tronpa irakaslea, Dultzaina irakaslea, oboe irakaslea, Kontrabaxu irakaslea, Koral irakaslea, Udal Musika bandako zuzendaria, Txistulariak, Euskaltegiko zuzendaria eta irakaslea, Euskaltegiko Idazkari akademikoa eta irakaslea eta liburutegi-zerbitzuaren arduraduna. Guztira 24 plazei eragingo lioke.



Horregatik, kontuan izanda lanpostua aldi baterako izaeraz betetzen ari den udal langilea 56 urte dituela, hizkuntz eskakizunaren betetzeaz salbuestea proposatzen da, honako arrazoietan oinarrituta: errekurtsoa ebatzi bitartean, Administrazio Bereziko Eskalako A2 azpitaldeko azpieskala teknikoan dauden gainontzeko lanpostuen hautaketa jardunbideak ezingo liriteke garatu; are gehiago, oinarri orokorren aurka ere helegitea jarri du eta honek abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko hautaketa jardunbide guztien izapidetza gelditzeko edo bertan behera uzteko arriskua ekar dezake.

Honela, hasera batean Tolosako udalak Hizkuntz Politikarako sailordetzari txostena eskatzea onartu bazuen ere, tronpeta irakaslearen hizkuntz eskakizunaren betebeharretik salbuetsita geratzeko helburuarekin, Hizkuntz Politikarako sailordetzak ahoz adierazi du salbuetsita geratu ahal izateko lanpostuaren titularra izan behar dutela.

Dena den, lege xedapenak ematen dituen aukerak, jurisprudenziaren eboluzioa aldi baterako lan kontratuetan eta udalak duen hizkuntz eskakizunen testu ingurua kontuan hartu behar da.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehena.- Abenduaren 1eko Euskal Enplegu publikoaren 11/2022 Legeak, bere 187.6 artikuluan honakoa xedatzen du:

“6.– Hizkuntza-eskakizunak zehazten du lanpostua hornitzeko eta bertan jarduteko behar diren euskararen kompetentzia-mailen multzoa. Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezkoa ez den bitartean, hark bakar bakarrik balioko du zehazteko zer balio eman behar zaion euskararen ezagutzari merezimendu gisa, bai lanpostuak hornitzerakoan, bai kanpoko hautaketak egiterakoan. Derrigortasun-datatik aurrera, hizkuntza-eskakizuna bete beharko da dagokion lanpostura iristeko eta bertan jarduteko.

*Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak, hizkuntza-normalizazioaren eskumena duen sailaren proposamenez, erregelamendu bidez erabakiko du zein egoeratan, salbuespenez eta betiere arrazoi nabarmenak direla medio, **lanpostu baten titularra salbuetsi ahal izango den lanpostuari ezarritako hizkuntza-eskakizuna betetzetik.**”*

Bigarrena.- Halaber, apirilaren 1eko 86/1997 Dekretuak, Euskadiko administrazio publikoen euskara erabilera normalizatzeko prozesu arautzen duen dekretuan bere 4 artikuluan hauxe adierazten du:



“Conforme a lo dispuesto en el art. 97.3 de la Ley de la Función Pública Vasca estarán exentos del cumplimiento del régimen general de preceptividad de los perfiles lingüísticos en relación al puesto de trabajo del que son titulares:

a) Quienes superen la edad de 45 años al comienzo de cada período de planificación, previa conformidad del interesado.”

Hirugarrena.- Zentzu berean, udaleko hitzarmenaren 164.4 artikuluan legeak ezarritako baldintza bera errepikatzen du alegia:

“Hizkuntza eskakizunen erregimen orokorrak ezartzen dituen baldintzetatik salbuetsita geratuko dira:

a) Plangintza Epea hasterakoan, 45 urte baino gehiago dituztenak, interesduna horrekin ados badago.”

Laugarrena.- Tolosako udalak euskararen erabilerari buruzko seigarren plangintzaldia 2018-2022 epeetarako onartua du. Momentu honetan zazpigarren plangintzaldia ari da garatzen.

Bosgarrena.- Europar Batasuneko 1999/70/EE Zuzentaraua, iraupen mugatuko lanari eta aldi baterako kontratazioari buruzkoa, hainbat gai ezberdinei buruz hitzegiten du baina gure kasu zehatzera ekarrita diskriminazio ezaren printzipioa aldarrikatzen du langile finko eta aldi baterako langileek dituzten eskubideen artean. Honela, zuzentaruaren arabera, iraupen mugatuko kontratua duten langileak ezin izango dira langile finkoak baino modu txarragoan tratatu kontratuaren iraupenagatik soilik, arrazoi objektiboengatik bestelako tratua justifikatzen ez bada.

Zuzentaruaren helburuen artean, iraupen jakineko lanaren kalitatea hobetzea, diskriminaziorik ezaren printzipioa errespetatzen dela bermatzea eta iraupen mugatuko kontratuak edo lan-harremanak bata bestearen atzetik erabiltzearen ondoriozko abusuak saihestea da.

Guzti honegatik, nahiz eta “Tronpeta irakaslearen” lanpostua betetzen ari den udal langilea aldi baterako lan kontratua izan, Europar Batasuneko 1999/70/EE Zuzentaruaren irizpideak jarraituaz, demandatzailea hirugarren hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko beharretik salbuestea proposatzen da. Dena den, proposamen honek baldintza bat izango luke: udal langileak konpromisoa hartu beharko du, urteko formazio planaren barnean, euskara ikastaroetara joateko eta trebakuntza saioak egiteko.

Hortaz, udalak onartu dituen bloke honetan, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuen



oinarri arautzaile espezifikokan isladatutako Administrazio Bereziko Eskalako A2 azpitaldeko azpieskala teknikoan dauden lanpostuen hautaketa jardunbideen izapidetza bermatzeko eta, udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- M.J.A.R. jauna, "Tronpeta irakaslearen" lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko salbustea, 2018 urtean euskararen erabilerari buruzko plangintzaldia hasi zenean 45 urte baino gehiago zituelako lanpostua betetzen ari zen udal langilea, beti ere konpromisoa hartzen badu urteko formazio planaren barnean, euskara ikastaroetara joateko eta trebakuntza saioak egiteko.

BIGARRENA.- 2018 urtean plangintzaldia hasi zenean 45 urte baino gehiago zituzten hainbat langilek eta hizkuntz eskakizuna egiaztatuta ez duten langileei ere, hizkuntz eskakizunaren egiaztapenetik salbustea, hain zuzen ere honako lanpostuei:

- Tronpa irakaslea
- Koraleko irakaslea
- Kontrabaxuko irakaslea
- Txistulari bat
- Liburutegiko arduraduna

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

3. TOLOSAKO UDALEKO KONTRATAZIOKO MAHAI IRAUNKORRAREN KIDEAK IZENDATZEA.

I.- AURREKARIAK

9/2017 Legeak, azaroaren 8ak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, kontratazio mahaiak xedatzen ditu, kontratazio organoen laguntzaile gisa, hainbat jardunbideetan. Era honetan, aipatutako legearen 320. artikulua ondoko hau xedatzen du: *Kontratatzeko eskumena kontratazio-batzorde batena denean izan ezik,*



administrazio publikoen kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekian, prozedura ireki sinplifikatuan, prozedura murriztuetan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduraren kasuan. Lizitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez dagoen prozedura negoziatuetan, kontratazio-mahaia eratu edo ez aukeran izango du kontratazio-organoak, salbu eta 168. artikulua b) letraren 1.a puntuan aurreikusitako urgentzia larrian oinarritzen denean, orduan nahitaezkoa izango baita mahaia eratzea. 159.6 artikuluan aipatzen diren prozeduretan ere, aukerakoa izango da mahaia eratzea..

Tokiko entitateen kasuan, kontratazio mahaien araubidea 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian arautzen da, ondoko ezaugarri nagusiekin:

- Kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da.
- Mahaikide izango dira, kasu guztietan, korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, edo ekonomia eta aurrekontua kontrolatzeko eginkizuna duen organoaren titularra.
- Gainontzeko kideak kontratazio-organoak aukeratuko ditu, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean.
- Kontratazio-mahaiak, gutxienez hiru kidek osatu behar dute. Kontratazio-mahaiko kide diren hautetsiak ezingo dira izan mahaiko kide guztien herenak baino gehiago
- Idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.
- Behin-behineko langileek ezingo dute, ez mahaia osatu, ezta eskaintzak baloratzeko txostenak egin. Bitarteko funtzionarioek mahaian parte hartu ahalko dute soilik behar bezalako gaikuntza duen karrerako funtzionariorik ez dagoenean eta espedientean horixe egiaztatzen denean
- Mahaiaren osaketa Kontratatzailearen Profilean argitaratu behar da. Halaber, Kontratazio-Mahai Iraunkor bat eratu ahal izango da.

Kontratazio-mahaiak, laguntza tekniko espezializatuko organo gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu, beste batzuen artean:

- a) 9/2017 Legearen 140 eta 141. artikuluek aipatzen diren aldez aurretiko baldintzak betetzeari buruzko egiaztagiria kalifikatzea eta, kasua bada, betetze hori egiaztatzen ez duten hautagai edo lizitatzailleak kanporatzea erabakitzea, zuzentzeko izapidea egin ondoren.
- b) Lizitatzailen proposamenak baloratzea.
- c) Kasua bada, nabarmenki baxuegitzat jotako eskaintza baten kalifikazioari buruzko proposamena egitea, 9/2017 Legearen 149. artikulua aipatzen duen prozedura izapidetu ondoren.
- d) Kontratua eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileri adjudikatzearen aldeko proposamena egitea kontratazio-organoari, Legearen 145. artikuluan



xedatutakoaren arabera, lizitazioa gidatzen duten administrazio-klausula partikularren agiriari jarraituz.

e) Prozedura murriztuan, lehia-elkarrizketan, lizitazio-prozedura negoziatuan eta berrikuntzarako elkartzeko prozeduran, hautagaiak aukeratzea, kontratazio-organoak eginkizun hori eskuordetuz gero; administrazio-klausula partikularren agirian jaso beharko da hori.

Bestaldetik, Kontratazio Mahaiek izango dituzte Autonomia Erkidegoetako legeek eta sektore publikoko kontratazioa arautzen duten araudiek ematen dizkien bestelako ahalmenak.

Horretaz gain, Kontratazio Mahaiaren araubide eta funtzionamendua ondoko legeriak arautzen du:

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duenak, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretuak, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duenak.
- 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duenak.

9/2017 Legea indarrean sartu ondoren, ezinbestekoa da baliabide elektronikoak erabiltzea kontratazio publikoan. Gure kasuan, baliabide horiek Eusko Jaurlaritzako Kontratazio Publikoko Plataforman kokatuta daude, eta aipaturiko euskarrian xedaturiko prozedura jarraitu behar da lizitazio elektronikoak gauzatzeko. Prozeduraren konplexutasunak aholkatzen du, alde batetik, Kontratazio Mahai bakarra eta iraunkorra izatea, eta bestetik, kideen kopurua handia ez izatea. Horretaz gain, kontratu bakoitzarekin lotura edo zeresanik duen arloko pertsonalak parte hartuko du aholkulari gisa, eskaintzak baloratzeko garaian.

Halaber, Tolosako udalaren kasuan, Kontratazio Teknikariari dagozkion funtzioak betetzen dituen langilea, bitarteko funtzionarioa da, Administrazio Orokorreko Teknikaria. Udal plantila aztertu ondoren, ez dago beste pertsonal aditurik kontratazio publikoaren arloan. Arrazoi hauek kontuan hartuta, mahaikide gisa izendatzea proposatzen da.

9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere 326.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontratazioko Mahaikideak dagokion eskumeneko kontratazio-organoak izendatuko ditu.

Aipaturiko Legeak, bere 2. Xedapen gehigarrian, hau zehazten du Toki-entitateen kontratazioaren arloko eskumenei buruz:

- Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-



kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

- Kontratu pribatuak, toki-entitateen ondasunen gaineko emakidak eta ondareari buruzko legearen mendeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzea: aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, edo hiru milioi euro baino gehiago bada; ondarea besterentzea ere plenoaren eskumena izango da, balioa ehuneko edo zenbateko hori baino handiagoa bada.

Horiek horrela, kontuan izan behar da Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 23.4 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita, Alkate-Lehendakariak 2023/1707 Alkatetzaren Dekretuaren bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrarengan honako eskumenak eskuordetu zituela, besteak beste:

1. Alkatetzaren eskumeneko kontratazio eta ondarearen kudeaketari buruzko gaiak:

- a) *Alkatetzari dagozkion eta zinegotzi delegatuen esku jarri ez diren obra-, zerbitzu- eta hornidura- kontratuak, obra- eta zerbitzu- emakidak, kontratu bereziak eta kontratu pribatuak: espedientea onartzea, lizitazioari hasiera ematea -hala denean-, esleitzea, eta kontratuaren kitapena onartzea, balio zenbatetsia 600.000 €-tik baino goragokoa denean.*
- b) *Obra-proiektuak onartzea, baldin eta haiek kontratatzeko ahalmena badu eta aurrekontuetan jasota badaude.*
- c) *Ondasun eta eskubideak eskuratzeko edota besterentzeko gaineko bestelako irabazizko negozio juridikoak (erosketa, errentamendua...), eta ondarea besterentzeko espedienteen hasiera onartzea, haien balioak sarrera arrunten % 5 gainditzen badu.*
- d) *Jabari publikoko ondasunen gaineko emakida administratiboak, lizitazio-aurrekontuak 600.000 € baino goragokoa denean.*
- e) *Tolosako udaleko baliabide propioei egindako enkarguak, balio zenbatetsia*



600.000 € baino goragokoa denean.

Halaber, aipatu behar da hemen Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 31/2021 txostena, non hau esaten den:

*Partiendo de las anteriores consideraciones parece evidente que la LCSP configura al órgano de contratación y a la mesa de contratación como dos órganos claramente diferenciados en cuanto a su función y con unos requisitos y composición muy distintos, de modo que la mesa es un órgano de asistencia técnica especializada, que debe realizar su función con plena independencia del órgano de contratación. Precisamente por esta razón **no resulta posible admitir que el titular del órgano de contratación pueda formar parte de la mesa de contratación como presidente de la misma**, ya que supondría que existiese la posibilidad de interferencia en las funciones que este órgano está llamado a desempeñar con objetividad, imparcialidad y profesionalidad.*

Aurreko argudio bera defendatzen du Estatuko Administrazioaren Kontuhartzailletza Orokorreko (IGAE) Ikuskaritza Bulego Nazionalak (ONA) kontuhartzaileei emandako gomendioan:

Cuando se asista como vocal a una mesa de contratación en la que participe como vocal o presidente de dicha mesa la persona titular del órgano de contratación, independientemente de si este ostenta la competencia originaria o si le viene atribuida por delegación, deberá hacerse constar en el acta de la correspondiente sesión, mediante voto particular, que dicha persona no puede formar parte de la mesa de contratación de acuerdo con lo establecido el art. 326.5 LCSP y que, por consiguiente, su participación constituye un incumplimiento de lo dispuesto en el citado precepto, tal y como se indica en el informe 31/2021 de la JCCPE, de 10 de junio de 2021.

Horretaz gain, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzaordeak, 88/2021 Txostenean, honako ondorioak ezarri zituen:



1. *En aquellos supuestos en que el Alcalde asuma la condición de órgano de contratación, no deberá formar parte de la mesa de contratación.*
2. *En el supuesto de que la condición de órgano de contratación corresponda al Pleno de la Corporación, el Alcalde podrá formar parte de la mesa de contratación.*
3. ***En los supuestos en que el Alcalde haya delegado su competencia como órgano de contratación en otro órgano (incluida la Junta de Gobierno Local), no podrá formar parte de la mesa de contratación.***
4. *En los casos en que la Junta de Gobierno Local asuma las competencias del órgano de contratación por atribución legal, el alcalde podrá formar parte de la mesa de contratación.*

Beraz, irizpide hauek eragiten dituzte Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren eskumeneko kontratazio-jardunbideak.

Aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udaleko Kontratazio Mahai Iraunkorra eratzea, Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak sustatuko dituen kontratazio-jardunbide guztietan laguntza emateko organo gisa.

BIGARRENA.- Kontratazio Mahai Iraunkorra osatuko duten honako mahaikide hauek izendatzea:

- Lehendakaria: Kristina Pelaez Errazkin. Ordezkoa: Aitor Agirresarobe Murgi.
- 1. Bokala: Ander Figuerido Zubiria. Ordezkoa: Goiuri Ezeiza Arandia.
- 2. Bokala: Udal Idazkaria, edo haren ordezkoa.
- 3. Bokala: Udal Kontu-hartzailea, edo haren ordezkoa.
- 4. Bokala: Kontratazioko Teknikaria, edo haren ordezkoa.
- 5. Bokala: Kontratazioak eragiten duen udal saileko arduraduna, edo haren ordezkoa.
- Idazkaria (botorik gabe): Kontratazioko administraria, edo haren ordezkoa.



TOLOSAKO
UDALA

2023IGBA0017

HIRUGARRENA. Kontratazioko Mahai Iraunkorreko kideen ordezkapena ondoko kasuetan emango da: hutsik daudenean, bertaratu ezinean, gaixotasunean, edo, orokorrean, halabeharrezko kasuetan.

LAUGARRENA.- Lehendakariak eskatuta eta mahaikideek aurretik adostuz gero, Kontratazio Mahai Iraunkorraren bileretan parte ahal izango dute azertu beharreko gaietan adituak diren udal langileek, edota mahaiaik izendaturiko aholkulari adituek. Pertsona hauek hitza izango dute baino ez dute boto eskubiderik izango.

BOSGARRENA.- Mahaiaren bilkuretan ondoko araubide juridikoa izango da aplikagarria:

- 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen duena, aplikagarri zaizkion gainontzeko xedapenetan.
- 817/2009 Errege Dekretua, 30/2007 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legea partzialki garatzen duena.
- 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra garatzen duena.
- 40/2015 Legean xedaturikoa organo kolegiatuentzako, hauetan arautzen ez diren gaietan.

SEIGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Tolosako Udaleko web orrian argitaratzea.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 9:30ean.

ALKATEORDEA

IDAZKARIA

Plaza Zaharra, 6A - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 65 44 66 - Faxa: 943 69 75 10 - e-mail: udate@tolosa.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU**8**145553-e824-47de-ba99-702c95e8c19c**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023IGBA0017-2023-07-18 Gobernu batzarra akta/2023-07-18 Gobernu